



2018ko ekaina

Joan den ekainaren 13an Seniorlab proiektuaren itxiera jardunaldia ospatu zen Azaro Fundazioan. Seniorlab Ermuko Udalarekin elkarlanean definitutako eta garatutako proiektu bat da, Bizkaiko Foru Aldundiak Elkarlanean 2017 Programaren bitartez finantzatua.

Zazpi hilabetez zehar Lea-Artibai eta Ermuko enpresek Zilar Ekonomiara bideratutako elkarlan berrikuntza sustatzeko lan egin dute, 50 urtetik gorako pertsonen beharrak asetzera bideratutako produktu eta zerbitzuak garatuz.



Horretarako ezinbestekoa izan da Pablo López-en laguntza, Creativigo-ko Zuzendari Nagusia eta Zilar Ekonomian esperientzia handia duen berrikuntza aholkularitzan aditua; berak dinamizatu ditu proiektuko bi talde saioak eta lau banakako sesioak. Proiektuaren amaiera iritsita **guztira 16 enpresak** parte hartu dutela nabarmendu daiteke, eta hirugarren adinera bideratutako **sei produktu/zerbitzu definitu direla** eraikuntzaren, elikaduraren, aisialdiaren, IKTen eta ortopediaren alorretan.

Ermuko Udala eta Azaro Fundazioa oso pozik daude proiektuaren emaitzekin, bai identifikatu diren negozio aukeren kalitate eta kantitateari dagokionez, bai enpresa parte hartzeari dagokionez.